

Arrasate

P R E S S

1998ko
Maiatzak 15
407. zenb.

IKUSPEGIA

MATILDE SAINZ

KIROLAK

AITOR PAVON

KULTURA

JON ANDUEZAREN

AZKEN FILM LABURRA

ZAHARRAGO

ETA ZUHURRAGO

Ardiekin mendira





PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- SOLARIUMA DUTXAREKIN (10 SAIO + 1 DOHAINIK: 8.000 pta*.)

Udako ordutegia. Eguerdietan ere zabalik!

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

* Eskaintza baliagarria maiatzaren 31 arte

Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE



Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia
Tel.: 77 11 30
ARRASATE

Ze historia irakatsi?

Nire gaurko gogoeta historiaren irakaskuntzara mugatuko da.

Arlo honetan bi dira aipatuko ditugun gaiak. Lehendabizikoa aztertze aldera, Mario Carreteroren hitzak nireak eginik, ezohiko ikuspuntua aukeratu dut gogoeta egiteko: *bestearen begirada*. Ustez, eta Vigotsky psikologo ezagunak esan zuen bezala, “*bestearen begirada* ezinbezteko baldintza da guri gertatzen zaiguna ulertzeko”. Horretarako, Alemaniako adibidea dugu, besteak beste: Berlingo harresia bota aurreko eta ondorengo eskola liburuak kontatzen duten historiaren arteko desberdintasunetan erreparatuko dugu. Ahonen izeneko autore alemaniarrak esaten duenez, bere herriko ikasleek historiaren oinarritzko zenbait kontzeptu eta



Matilde Sainz Osinaga

“Errealistak bagara, murriztu egin beharko dugu edukien kantitatea”

historia aroak aldatuta ikusi zituzten beren eskola liburuetan ia egun batetik bestera. Aldaketa hauek inguruan ere gertatu ziren: zenbait monumentu eta museo desagertu eta kale izenak aldatu egin ziren. Hona hemen beste adibide bat: arestian aipatu Carretero irakasleak eta bere taldeak Espainiako eta Mexikoko eskola liburuak alderatu dituzte. Azterketarako aukeratutako gaia “Amerikaren aurkikuntza” izan da. Zeintzuk dira aurkitutako desberdintasunak? Adibidez, Espainiako liburuetan Cristobal Colon eta Errege Katolikoak dira historiaren benetako protagonistak; Mexikoko liburuetan, aldiz, pertsona ospetsu hauek apenas aipatzen dira. Espainiako ikasliburuetan apenas aipatzen da indiarrek jasandako tratu txarra; besteetan, aldiz, informazio dextente

ematen da gai honetaz, bai testu bidez, bai marrazkiz. Espainiako liburuetan esaten da bertakoek “urrezko eskaintzak” egiten zizkietela espainolei; Mexikoko testuetan, berriz, “konkistaren arrazoi bat indigenen urrea eskuratzea zen” aipatzen da. Eta abar, eta abar.

Beraz, ikusten denez, Historia irakasteko edukiak baloreen eta ideologiaren arabera aukeratzen dira.

Orain gogoeta honen bigarren puntuari helduko diogu labur-labur: zer da historia jakitea? Buruz ikasi aroak, gertakariak, protagonistak, urteak, eta abar? Edo hau guztia ikastearekin batera, bibliografia aurkitzen ikasi, informazioa jasotzen trebatu, iritzi kritikoa garatu, inoren tokian jartzen jakin, eta abar? Ba, jakin beharko genuke historia zein beste edozein arlo irakasteko eta ikasteko denbora behar dela. Beraz, edukiez gain aipatu prozedurak irakatsi nahi baditugu, zer irakatsi aukeratu egin behar dela. Errealistak bagara, murriztu egin beharko dugu edukien kantitatea. ■

“Entzun, denok egiten dugun gauza da, baina, oso gutxi dugu aditzeko ohitura. Eta drogari dagozkion arazoetan, beste askotan bezala, oso garrantzitsua da aditzen jakitea”.

Angelines Castellano

ARRO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK
ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora Kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65, Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Manjo Deogracias, Marian Porcel, Naiara Gorroño. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 79 02 26) **Disolnua:** Txos Azurmendi.

Asteburuetako berriemakaldea: Lierni Unibarren.

Kolaboratzaileak: Ander Elxeberria, Maria del Campo, Iban del Campo, Iñaxo Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirreurrela, Juan Luis Azkarate, Altor Oro-bengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA Taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Unibarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Lefona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frankoeko kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuarekin egiten da.

Azaleko argazkia: Marian Porcel.

200.000

pta hildako batengatik

Inork ez dezala pentsa San Felipe Apostoleko bazkide izanda, ez dagoela gasturik familian baten bat hiltzen denean. San Felipek estaltzen dituen gastuen gainetaik, Arrasateko familia normal batek 200.000 pta inguru ordaindu beharko ditu, gure gizartean gaur egun hildakoen inguruan egiten diren urrats gehienak egiten baditu.

ITURRI ONETIK

Eroski eta Fagorren arteko hikamikak

Arteko hiperra ireki zuela eta, Eroskik eskaintza berezia prestatu zuen etxeko tresna elektrikoaren saillean. Aspes ikuzgailua 30.900 pta.tan jarri zuen.

Berehala, Leioa inguruko banatzaileek beren protestarik ozenena erakutsi zioten Fagorri, normalean 36.900 pta.tan saltzen omen dira eta. Fagorrek ere ez omen du begi onez ikusi Eroskiren salmenta modua.

Ez da lehenengo aldia horrelako zerbait gertatzen dela MCCko kooperatiba bien artean: Donostiako Garberako hiperra ireki zenean ere, antzeko zerbait gertatu omen zen. Orduan Donostia inguruko banatzaile batek baino gehiagok erosle moduan joan, produktuak erosi eta ondoren Fagorrera deitu zuten, fakturak erakutsiz.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA?

Apirilaren 24an, Industria Ingeñiaritza Teknikoaren XXVI. promozioari eta Sistema Ingeñiaritza III. promozioari diplomak banatzeko ekitaldia egin zen Arrasateko Eskola Politeknikoko batzar areto nagusian (Mondragon Unibertsitatean).

Ekitaldian zehar, aurkezpenak eta kunplimentuzko hitzak bi hizkuntzetan egin ziren. Tartean Javier Mendiluze Goñi jn.ak (MEPEko Ingeñiaritza eta Kalitateko zuzendaria) *Agurra eta Zorion-emaitea*, euskara hutsez egin zituen (eskerrak berari), baina ekitaldiaren mami eta ardatz izan zen hitzaldia, Joan Mari Uzquidun jn.ak (MCCko lehendakariorde eta Automozio sailerko burua) emana, han diplomak jaso zituzten 200 teknikari berriei eta etorkizunari begira egindakoa, espainiera huts-hutsean egin izan zen. Duela bost bat urte egin zen eta nik komunikabideetan salatu nuen guraso batzar batean bezalatsu, euskaldun batzuek behintzat, geure herrian, gai nagusietan, baztertuak eta arrotz sentitu ginen eta bost urte hauetan horko hizkuntza filosofian tamalez aldaketarik ez dela izan somatu genuen.

Arrasateko Unibertsitateak, erakutsi zigunez, itxura eta azala ditu elebidunak (ez euskaldunak) eta mamia eta arima, aldiz, zeharo erdaldu-

nak. Han ikusiaren arabera, azken finean, nagusiki prestakuntza erdalduna duten teknikariak gizarteratzen ditu, bai prestakuntzaz eta, okerrago dena, agian baita filosofiaz eta pentsamoldez ere.

Kontuan hartu, hango 200 inguru titulu hartzaileetatik, erdiak baino ondotoz gehiago, beheragoko mailetako ikasketak euskaraz eginak zirela eta teknikari moduan erdaldun egin direla maila nagusiengatik, espezialitateetan, euskaldun izateko aukerarik izan gabe. Irakasle ikasketak ez ezik, Ingeñiaritza eta Ekonomia ere euskaldun behar dago, jaun-andreok.

Joan Mari Uzquidun MCCko lehendakariordeak emandako hitzaldi interesgarri bezain mamitsu eta esanguratsuak, nabarmen jarri zuen enpresa/ekonomia multzo horren funtzionamenduko aurrerabideak zeintzuk diren: globalizazioa, aldaketa beharra, jarrera egonkor eta kontserbadoreak astindu beharra, enpresak banakako unitate izatek sare erako antolamenduetara pasa beharra, zer egin jakitean zerbait erabaki eta aurrera egitea, etab. Bere eta Unibertsitateko ekitaldi nagusiaren praxia ikusita, ordea, printzipio horiek euskararen enpresari aplikatzetik urrun dabilzala esan daiteke.

Kontraesana bikaina da, enpresek aurrera egin dezaten jarrera egonkor eta kontserba-

dore erosoak astindu eta portaerak aldatu egin beharko direla jakin eta aldarrikatzen aritu eta euskararen garapena ezinbestekoa duen Euskal Herriaren bihotzean hitzaldia osoro eta zeharo espainieraz ematea. Noiz arte utzi nahi da ba enpresentzako, ekonomiarentzako eta diru mundurako hain baliozkoa eta hain premiazkoa den teoria hori euskararen enpresan eta eginbidean erabili gabe? Noiz arte jarri behar zaie Euskal Herriaren teknikari berri euskaldunei espainiera hizkuntza eredutzat?

*Andoni Sarriegi Eskisabel
Beasain*

HITZARMENA ZAPUZTUZ

Duela pare bat aste jakin izan dugu, AEDk bultzatuta, udalak herriko zenbait talde eta elkarterekin hitzarmena sinatu duela euskara izan dadin elkarren arteko harremanak burutzeko erabiliko den hizkuntza. Euskararen berreskurapena bultzatzeko den ekimen (hitzarmen) hau hainbat eta hainbat elkarte, enpresa, eta abarrek hitzartu da azkenengo urteetan. Ziur gaude beste hainbat elkarte eta enpresa egongo direla prest beratu sinatzeko, ekimen hau txalotzeko iruditzen zaigularik.

Salatzeko iruditzen zaiguna ondorengoa da: alkatearen argakia agertu ostean *Arrasate Pressen* Hitzarmena sinatu dutenekin batera, egun gutxi-

ra udalaren bando bat irakurri ahal izan dugu, CCOO eta UGTk enpleguaren inguruan aurkeztutako mozioari buruzkoa, non erabiltzen zen hizkuntza bakarra gaztelania den. Nola daiteke hori? Akaso herri-tarrekin izan beharreko harremanak gaztelaniaz izateko hitzarmena sinatu al dugu? Nork du hori gertatzearen erantzukizuna? Alkate txit agurgarria, zuk duzu sinaturiko bandoa gaztelania hutsez agertzearen erantzukizuna. Beharrezkoa da "Hitzarmena" eta beharrezkoak dira hitzarmenak Arrasate euskalduntzeko bidean, eta horiek eman eta bermatu daitezkeen gure laguntza lutzatuko dugu. Baina guztia irudi kontuan geratuz gero, zapuztua geldituko da "Hitzarmena"ren zentzua eta helburua, eta horrelakorik ezin da onartu, ezta onartuko ere. Euskara irudi kontua izatea ez da onargarria, euskarak benetako konpromisoak behar ditu bere berreskuratze bidean eta ez itxurakerian oinarrituriko pertsonalismoak, ezta euskaltzaletasun faltsurik ere.

Alkateari eta hirutariko gobernari eskatzen diogu harreman guztiak euskaraz izateko eta "Hitzarmena" aurrera eramateko benetako konpromisoa har dezatela. Gure geure aldetik hori horrela izan dadin behin eta berriro ahaleginak egingo ditugu, euskarak bizi behar duelako.

Euskal Herriaren Euskaraz

TOKION
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN SALMENTA
Erdiko Kale, 7
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

Sili Sili
Martxa eta estilo
handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 71 24 25


Hartuko zenituzke joezina gainditzeko pilulak?

Jende asko aztoratuta dabil Viagra izeneko pilularekin, inpotentzia osatzen duelakoan



Arturo Aguedas
(18 urte)
Langilea

Ez dakit ezer pilula horiei buruz. Ez dut entzun ezer ere ez.



Miguel Delgado
(55 urte)
Langilea

Oraingoz ez nituzke erosiko. Dena den, beharra daukanarentzat erostea ondo dago.



Jose Cirre
(48 urte)
Langilea

Oraingoz ez nituzke erosiko, ez dudalako beharrik. Dena den, propanganda larregi eman diote pilulatxoari.




Eloy Zubizarreta
(67 urte)
Erretiratua

Bai. Merezki badu, bai.



Mariasun Erraskin
(50 urte)
Etxekoandrea

Ez. Senarrak beharrez gero, berak ikusi beharko luke erosi edo ez.



Javier Letamendi
(70 urte)
Erretiratua

Ez, ez, oraindik noizean behin funtzionatzen dugu... Dena den, balioko dutela uste dut, jendea Andorrraraino joaten delako pilulak erostera.



Ramon Jauregi
(25 urte)
Langilea

Garestiegiak dira, eta gainera, oraindik gazteak gara! Geroxeago ikusiko da...



Ignacio De La Cruz
(52 urte)
Pentsioduna

Dirudienez, mundu erdia jota gabiltza... Duten prezioan ez ditut erosiko. Medikuek esan du asko hartuz gero, gauzak urdin ikusten direla.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Etxean gaixoren bat badaukazu, zuri laguntzeko prest gaude.

- Ohe artikulatuak
- Zirkulazioa eragiteko koltxoak

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

GAMMA

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel.: 79 51 25

Arrasate

LANAK

PABLO URANGAN

Pablo Urangaraino iritsi dira gasa sartzeko lanak.

SAN FRANTZISKON

Biribila egiten eta gasa sartzzen ari dira. Pablo Uranga kaleraino iritsi dira.

KONTZEZIÑO AUZOAN


Bidea asfaltatzen ari dira.

TAKOLON

Biribil berria egiten ari dira. Luze joko du.


AZATZA ETXEETAN

Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealekua egiteko lanak.



Biztanleak: 24.571
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 15

Zeruak lainotuta egongo dira. Euria ere egin dezake. Tenperatura ez da aldatuko. Haizeak Iparraldetik joko du.



LARUNBATA 16

Zeru lainotuak. Tarteka euria egin dezake. Haizeak Iparraldetik joko du.



IGANDEA 17

Aurreko egunetan baino laino gehiago egongo dira. Tarteka zaparradak. Tenperatura ez da aldatuko.

Ilargia



betea

Ilargi betea izango da, maiatzaren 19a arte.

Mezak

San Frantzisko

(Frantziskotarren elizan Parrokia berri arte)

Larunbatean

09:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)
 10:00 (euskaraz)
 11:00 meza nagusia (Erramu bedeinkapena eta prozesioa egingo da.)
 12:30 (erdaraz)
 19:00 (erdaraz)

Uribarri

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)
 12:30 (erdaraz)

San Andres

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)
 11:00 (euskaraz)
 12:00 (erdaraz)
 13:00 (erdaraz)

Santa Teresa

Larunbatean


19:00 (elebiduna)

Igandean

10:30 (erdaraz)
 11:30 eta San Isidron (euskaraz)
 12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%98,3



Distantziak

Arrasate

121	Baiona											
690	579	Bartzelona										
57	170	620	Bilbo									
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela								
72	50	529	119	1.088	Donostia							
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz						
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea					
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril				
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris			

ILUNA taberna



Elkano, 23
Tfnoa. 79 23 78

MENETA TABERNA JATETXEA

Gipuzkoa Etorbidea, 48
Tfnoa. 79 65 31



KULTURA ELKARTEA
Zigorrola, 1
Tel.: 77 03 28 (Elkartea)
79 91 82 (Taberna)

ZIORLA TABERNA

Antso Abarka, 5
Tel.: 79 20 46

MUSAKOLAKO JAIAK 98

TXANPI BODEGA

Gipuzkoa Etorbidea, 18
Tel.: 79 20 22


Basilio

Bakailaoran
espezializatua

Gipuzkoa Etorbidea, 37
Tel.: 79 81 53

JUBILATUEN ELKARTEA

Gipuzkoa Etorbidea, 45
Tel.: 77 12 66



HOSTAL MUSAKOLA

Taberna - Jatetxea

Gipuzkoa Etorbidea z/g
Tel.: 79 20 50



BEBERLY

Gipuzkoa Etorbidea, 9
Tel.: 79 16 99

HIPER EROSKI KAFETEGIA - JATETXEA

Musakola Pol. z/g
Tel.: 79 55 69

IOSU KAFETEGIA

Elkano kalea, 25
Tel.: 77 03 66

Zatoz! TXINATO KAFETEGIA

Elkano kalea, 9
Tel.: 79 20 95

KAT *a* IDE J A T E T X E A

Plater konbinatuak
eta bokatak

Kataide industrialdea, 10 bis
Tel.: 79 60 10 / 77 10 80

JEY JULIWER

Elkano kalea, 36
Tel.: 79 22 11

LA ESTRELLA TABERNA KAFETEGIA

Elkano kalea, 3
Tel.: 79 20 82

15 ostirala

■ ZINEA

Scream 2, Alai zineman, gaueko 22:00etan.

■ SAN ISIDROAK

10:00etan hasiko dira Musakolako jaiak. 11:30etan meza nagusia San Isidro elizan. Baserritarren bazkariaz gain, jubilatuen mus, briska eta bolo txapelketa jokatu dira arratsaldean. 18:00etan futbito txapelketa. 19:00etan buruhandiak eta 23:00etan dantzaldia.

■ MIKEL LABOA, OÑATIN

Oñatin egin behar zen kontzertua, bertan behera gelditu da, Mikel Laboa gaixorik dagoela eta.

16 larunbata

■ ZINEA

Scream 2, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ MUSAKOLAKO JAIAK

11:30etan Langa - Faus-to banaka eta Beitia-Vitoria eta Txispas-Ikutixo arrasatearren arteko pilota partidak auzoko pilotalekuan. 12:00etan motorzaleen bilera hasiko da. 12:30etan herri txikiteoa eta kalejira astoarekin. 13:30etan, "urrezko astokiloen" banaketa eta 14:30etan herri bazkaria. Arratsaldean, VII. Xake txapelketa. 17:00etan Musakolako Txarangaren kalejira. 17:30etan sokatira saioa egingo da eta 19:30etan buruhandiak. 23:00etan Urgabe taldearen dantzaldia eta San Isidro elizaren ondoan, berriz, Kaixo taldea. 23:30etan San Isidroetako bolo txapelketa.

■ ARRASATE MUSIKAL

Arrasate Musikaleko Banda Txikiak eta Hondarribiko Musika Eskolako Haize Taldeak emanaldia eskainiko dute eguerdiko 12:00etan. Saioa Arrasate Musikalen areto nagusian izango da.

■ UDABERRI 98

Askagintzak drogomenpekotasunaren aurkako "Udaberri 98" sentsibilizazio kanpaina hasi du. Hori dela eta, larunbatean Takolo, Pirritx eta Porrotx izango dira Amaia Antzokian, eguerdiko 12:00etan.

■ EUSKARAREN EGUNA, ARETXABALETAN

Egun osoan zehar antolatu dute zerbait eguna ospatzeko. 14:00etan bertso bazkaria, J. Sorozabal eta A. Agi-

rrealdegirekin. 18:00etan Loramendi dantza taldearen ekitaldia. 22:30etan erromeria, Alaitz eta Maiderrekin, Mitarte kalean.

■ ANDALUZIAKO ZERAMIKA

Andaluziako Zeramika erakusketa zabalduko da larunbatean, eguerdiko 13:00etan. La Rambla herriko zeramika erakutsiko da.

17 igandea

■ ZINEA

Scream 2, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ MUSAKOLAKO JAIAK

Eguerdiko 12:00etan gimnasia erritmiko erakustaldia kiroldegian. 12:30etan txikiteoa. Arratsaldeko 16:30etan taula handiko xake partida jokatu da. 18:00etan herri kirolak. 19:30etan, Vantroi eta Descontrol de Vitoria taldeen berbena. Gauerdian suzko erruberak piztuko dira.

■ XVI. JANTZI KIROLA EUSKARAZ!

Oñatiko Laixan elkarteak AEDren laguntzaz, Arrasate-Oñati lasterleta antolatu du "Jantzi Kirola Euskaraz" lelopean. Lasterketa goizeko

11:00etan hasiko da. Monte tabernan izena eman ez duenak, egunean bertan Portaloian eman dezake 10:30ak arte, 1.000 pta.tan.

■ AL-ANDALUS KULTURA ASTEA

Andaluziako elkarteak IX. Kultura Astea hasiko du igandean. 13:00etan emango diote hasiera Musakolan duten etxean. 18:00etan Erregina eta Ohorezko damen hautaketa egingo da.

■ SENIDEARTEKO XIII. TOPAKETA

Aita Menni ospitaleak zentrua, gaixoa eta bere senideen arteko harremanak sendotzeko topaketa antolatu du. 10:30etan ongi etorria egingo dute. 11:00etan meza nagusia. 12:30etan gaixoen ekitaldia hasiko da eta 14:00etan bazkaria. 15:30etan, zozketaren ondoren, dantzaldia.

18 astelehena

■ ZINEA

Scream 2, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

■ TXISTU KONTZERTUA

Arrasate Musikalek txistu emanaldia eskainiko du

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 79 20 57

**ZUBIZARRETA
LANTEGIAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 79 15 65

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

bere etxeko areto nagusian, arratsaldeko 19:45ean izango da.

■ ANDALUZiarREN KULTURA ASTEA

Hirugarren adinekoei omenaldia egingo diete Al-Andalus elkartekoek. 19:30etan luntxa eskainiko diete. Ondoren, saloi dantza.

19 asteartea

■ ZINEA

Scream 2, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

■ AL-ANDALUS

Kultura astearekin jarraituz, 18:30etan umeentzako marrazki lehiaketa antolatu dute. 20:00etan zentruko bazkideek eskainitako poesia saioa egongo da, Mari Martinezek zuzendua.

20 asteazkena

■ TRONBOI KONTZERTUA

Arrasate Musikalek tronboi kontzertua eskainiko du bere etxeko areto nagusian. Emanaldia arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

■ AL-ANDALUS

Andaluziako jakien dastaketa antolatu dute arratsaldeko 19:30etan, zentruan bertan.

21 osteguna

■ TRONBOI KONTZERTUA

Ostegunean ere tronboi kontzertua eskainiko du Arrasate Musikalek. Hau ere arratsaldeko 19:00etan hasiko da, bere etxeko areto nagusian.

■ AL-ANDALUS

Umeen eguna ospatuko dute andaluziar zentruak. 18:00etan "Los Diana" pailazo taldearen saioa egingo da. 19:30etatik aurrera ping-pong, partxis eta trivialean arituko dira, besteak beste. Ondoren txokolatada.

■ MAHAI INGURUA

Lana nola lortu izenburuan arituko dira, Jose Eloorrieta, Rafa Diez eta Jose M^o Larrañaga, Alberto Garcia zuzenduta. Mahai ingurua 19:00etan izango da Eskola Politeknikoan. Mahai ingurua ekonomiako ikasleei begira antolatu da.

■ AEKANPADA

Sakanako Urdiainen izango da aurtengo AEkanpada, maiatzaren 15etik 17ra bitartean. Larunbatetik igandera bitartean Maixa eta Itziar, Alaitz eta Maider, Joxe Ripiau, Latzen eta Betagarri taldeak arituko dira bestek beste, Sarasua, Maia eta beste hainbat bertsolarirekin batera.

■ KOMIKI EZ SEXISTEN I. LEHIAKETA

Nahi duen guztiak har dezake parte, Arrasateko Komiki Ez Sexisten I. lehiaketa. Lanak aurkezteko epea uztailaren 13an amaituko da. 220.000 pta banatuko dira saritan.

■ TXATXILIPURDIREN UDALAKUAK

Maiatzaren 29a baino lehen eman behar dute izena Txatxilipurdin antolatutako udalekuetara joan nahi dutenek. Udalekuak Garaion, Nafarroan, Orion eta Andaluzian izango dira. Udalekuok eskolaurre, DBH eta LHko ikasleei begira prestatu dira. Eskaintza ezberdinak dituzte adin bakoitzerako.

■ SAN FRANTZISKO UDALAKUAK

San Frantzisko gazteek antolatutako udalekuetara doazen gurasoek bilera egingo dute maiatzaren 19an, 18:00etan. Sebero Altuben egingo da. Eraman beharreko informazio orriak banatu dituzte dagoeneko gurasoen artean. Norbaitek jaso ez baditu, San Frantzisko elizara dei dezake.

■ PAZ GARCIAREN ALDEKO MEZA

Maiatzaren 11n hil zen Ama asunzionistaren omenez, larunbatean, maiatzak 16, meza eskainiko diote San Andres parrokian. Arratsaldeko 19:00etan.

■ LANBIDE HASTAPENA, IZENEMATEA

Datorren ikasturterako izenematea, maiatzaren 22ra arte egongo da zabalik. Deba Garaiko 16-20 urte arteko gazteentzako ikastaroetan nork bere udalerrian eman dezake izena.

■ ARRASATE-ARETXABALETA, IZENEMATEA

Arrasate-Aretxabaleta institutuan izenemateko epea maiatzaren 18an amaituko da. Berri gehiago nahi izanez gero, Aretxabaletako 79 79 00 eta Arrasateko 79 44 47 telefonoetan.

■ EUROPA ETA EUROA

Familia eta Gizarte Heziketarako zentruak, Europaren eraikuntzari eta euroari buruzko hitzaldia antolatu du, Jose Antonio Otxotekok, zientzia politikoetan eta kazetaritzan litzentziadunak hitz egingo du. Arratsaldeko 16:00etan, zentruan bertan.

USTEAK USTE

Ertzainburua eta prentsa

Ondorengo telefono elkarrizketa baten transkripzioa da, maiatzaren 11n gertatu zena, goizeko 11:55ean. Telefonoaren beste aldean Carlos Segura nuen, Arrasateko ertzainburua.

— Bai, nor da?

— Joxe Aranzabal naiz, Arrasate Presseko eta ATBko erredaktore burua. Nahiko nuke zurekin bilera bat egin elkar ezagutzeko eta Arrasate Pressen elkarrizketa egiteko.

— Gaur ezin dut; kanpoan nago bileran.

— Gera gintezke zuri ondatorkizun egun baterako?

— Begiratu egin beharko nuke agendan, baina nik ez dut inolako harremanik nahi prentsarekin.

— Esan nahi duzu ez duzula onartzen ez bisitarik eta ezta elkarriketarik ere?

— Berriz ere esaten dizut ez dudala ezer jakin nahi prentsarekin.

— Nik uste dut Arrasateko jendeari interesatzen zaiola nor den ertzainburua eta zer asmo dituen...

— Barkatu, baina ez dut zurekin hitz egin nahi. Moztu egin behar dut elkarrizketa hau. Barkatu, baina moztu egin behar dut. Klik...

Joxe Aranzabal

Eolo

Apirilaren 30eko Arrasate Pressen Juan Luis Azkaratek astebate lehena hainbat taldek Elgeako zentral eolikoaren aurka eman genuen prentsaurrekoari buruz jardun zuen, eta ez genuela konbentzitu esaten zuen. Badakigu ez dugula hori jende guztiarekin lortuko, baina puntu batzuk argitzen saiatuko gara, uste baitugu ez zuela gure mezua ulertu.

Zentral honen aurka azaltzen gara bere helburu bakarra dirua lortzea delako, eta inolaz ere ingurugiroaren aldeko zerbait egitea. J.L. Azkaratek dio "mendiren bat industrializatu beharko da, derri gorrez". Adierazpen honekin ados egongo ginategia, eta gure mendi ederrenen sakrifizioa onartuko genuke, baldin eta sortutako onurak mereziko balu, baina, Elgeako zentralak gutxi gorabehera 8.500 biztanleko herri bat hornitzeko behar den elektrizitatea besterik ez du sortuko. Hego Euskal Herriko elektrizitate eskaera guztia energia eolikoarekin bakarrik betetzeko, Elgeakoa bezalako 300 zentral eoliko behar dira.

Ez gatoz bat "ez gara Tarifan bizi, eta hemen haizeak bakarrik altueretan jotzen du gogor" esaldiarekin. Altuera txikiagoan ere badago haizea, baina hori aprobetxatzeko beste haize errota batzuk erabili behar dira, eta ez Gamesa enpresarenak. Hauek erabiltzen duten teknologia zahartua ari da gertatzen, eta 600 kw. ko potentzia dute, baina Danimarkan adibidez, 1.200 kw. koak erabiltzen dituzte. Hala ere, lehenengo modelook jartzeko interesa dago. Bai Gamesa eta bai Iberdrola, enpresa talde berekoak dira, eta azken batean jabeak berberak direnez, negozioa borobila da.

Azkaratek zentralak non jarri behar diren galdetzen digu. Hona hemen gure eran-

tzuna: inguruari benetan kalterik egiten ez dioten tokietan, hau da, baldintza hauekin, hemen ez. Beharbada arrazoiak izango du, eta "Elgea ez da Ngorongoro" izango, baina Aitzgorriko Parke Naturalean sartzeari zegoen aurreikusita, zentrala eraikitzeak aukera azaldu eta mugak aldatu zituzten arte.

Azken batean, arazoa garbia da: haiek (Energiaren Euskal Erakundea, Iberdrola, Gamesa...) diote zentral hau bultzatzen dutela energia mota hau "ekologikoa" delako. Baina proiektua aurrera eramateko, paisajea hondatu eta pista izugarriak eraiki behar badiutuzte (250 tonako garabiak igo ahal izateko), animalien gan eta landaretan eragina izan behar badu... gure ustez ez da oso ekologikoa.

Gainera, energia eolikoa ez ditu energia elektrikoa lortzeko beste era batzuk ordezkatuko, proiektatuta dauden 26 zentralekin gure beharren %4 ere ez baitute sortuko. Horretarako hobe dugu orain arte bezala jarraitzea. Mendiek behintzat, hor segituko dute.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkizuegu apirilaren 26an Elgeako zentral eolikoaren aurkako mendi ibilaldira etorri zineten guztiei.

Deba Garaiko mendi taldeak, Gipuzkoako Mendizale Federakundea, EKI, Eguzki, Arrasateko AHTren Aurkako Asanblada.

“ Elgeakoak 8.500 biztanleko herri bat hornitzeko adina indarra sortuko du ”

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
 Ferrerías, 35 ARRASATE
 Tel.: 77 13 78

Pavimentos AGR
ARROZTEGIA
 Mota guztiak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihokak • Ateak
 Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA
Erakusketak eta biltegia:
 Kale Txiki, 3 - beheka • ARRASATE
 Tel.: 77 11 20 • Faxa: 77 11 20

ARETXABALETA

① Emakume bat istripuz hil zen

C.G.M. emakume aretxabale-tarra, 89 urtekoa, joan den igandean hil zen Aretxabale-tan izandako istripuaren ondorioz. Auto batek harrapatu zuen bidea zeharkatzen zebilela. Larri zauritu zen eta berehala eraman zuten Deba Garaiko ospitalera. Handik Txagorritxura eraman zuten, baina emakumea hil egin zen.

ANTZUOLA

② San Isidro feria

Bihar, larunbata, San Isidro feria egingo da. Goizean azoka jarriko da barazki, gazta eta Iparraldeko produktuekin. Arratsaldean, ganadu feria. Benito eta Jaione Segurola aita-alabak ardi mozketan ari-tuko dira eta Saralegi anaiak herri kiroletan. Iparraldeko Ahierra herriko biztanleak etorriko dira. Kale bat eskainiko zaie.

BERGARA

③ Evita jaietarako

Hil honen 29an hasiko dira



Bergarako jaiak eta ekainaren 2ra arte iraungo dute. Jai egitarauak eskainiko dituen musika emanaldi askoren artean, musikazaleen ikusmina piztuko duen ikuskizunarekin disfrutatzeko aukera izango da: *Evita* opera. Alfredo Gonza-

lez, Bergarako Orkestrako zuzendariak, *Evita* filmaren musika egokitu du. Bergarako Orkestra Sinfonikoak eskainiko du opera ezaguna herriko frontoian. Esan bezala, maiatzaren 29an izango da, gaueko 23:00etan.

ESKORIATZA

④ Atzerritarrak Luis Ezeizara

Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolara, bi eskola italiarreko ikasleak eta Britainia Handiko eskola bateko ikasleak etorri dira. Lau ikastetxeetako ikasleek, informazioa trukatu dute fitxa didaktikoen bidez. Irakasleek eskola bakoitzaren metodologiak jardun dute. Iaz Italian elkar-tu ziren lau eskoletako irakasle eta ikasleak eta datorren urtean Britainia Handira joango dira.

ELGETA

⑤ San Asentzio laster

San Asentzio jaiak maiatzaren 24an egingo da, Elgetako Gazte Asanbladak antolatuturik. Trikitilariak izango dira, meza, dantzariak eta bazkaria, hau 14:30etan. Bazkarirako txartelak 1.500 pta balio du. Gaztetxean edo Patxi tabernan eros daitezke. Maiatzaren 22an Piztiak taldeak musika emanaldia emango du gaztetxean. 23an, Arakajum taldearen txanda izango da.



GRONDO
Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76

Euskal Y-ari alegazioak

Eusko Jaurlaritzak Lastertasun Handiko Trenaren ibilbidea kaleratu du eta Euskal Herriko udaletxeetan jarri du ikusgai. Arrasateko udaletxean ere, trenaren ibilbidearen planoak eta xehetasunak ikus daitezke.

Tren sarearen planari alegazioak egin nahi izanez gero, hilaren 27a baino lehen aurkeztu beharko dira Eusko Jaurlaritzan.

Deba Garaiko Mankomunitateak hainbat iradokizun helaraziko dizkio Eusko Jaurlaritzari LHTren ibilbidearen gainean. Eskakizun garrantzitsuena zera da: trenak geratokia izatea bailara honetan. Bailarako udal guztiak geratokiaren alde daude, baina Bergarako Udalak ibilbide alternatibo bat aztertzea eskatu zuen. Trena Angiozartik pasatuko dela eta, Epeletik zehar pasatzeko eskatu zuen Bergarako Udalak. Mankomunitateak egindako azterketaren arabera, teknikoki posible da trena Epeletik bideratzea, baina ez luke geratzeko aukerarik izango. German Berezibarrek esan duenez, garrantzi handia du geratokiak. "Hiru populazio gune daude, hau da, hiru hiriburuak. Guk etorkizunean laugarren gunea izan nahi dugu. Gure erkidegoaren erdian gaudelako eta gure herriak ia elkartuta daudenez, hiri itxura dugulako. Gainera, gaur egun tren saretik kanpo gaude erabat".

Arrasateri dagokionez, trenak hainbat lekutan izan dezakeen eragina aztertzea eskatuko da. Besteak beste Udalatxen, Kobaten eta Lezetxikin. Kobateko paisajearen eragin nabarmena izango du. Udalatx aldean ere izugarritzko tunela egingo da. Ikusi egin behar urarekin zer gertatzen den hor.

AED etorkizunari begira, hamabost urte betetzerakoan

Ametsa Eraikiaz Doa. Hori xe da Arrasate Euskaldun Dezagun alkarteak bere 15. urteurrena ospatzeko aukeratu duen leloa. Atzo goizean eta arratsaldean AEDk eta bertatik sortutako elkarteen ordezkariak orain arte egingdako lana eta aurrerantzean egin beharrekoa azaldu zuten bi prentsurretan, Donostian eta Arrasaten. Horrez gain, urteurrena ospatzeko prestatu duten egitarau zabalaren berri eman zuten.

Urteurrenaren aurkezpen ekitaldian AEDko lehendakaria den Joseba Ezpeletak Ekin, Txatxilipurdi, Euskalan eta Arrasate Komunikabideak elkarteetako ordezkarien laguntza izan zuen. Baita Arrasateko alkatearena ere. Donostiako ekitaldian, gainera, Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak ere izan ziren.

Ekitaldi bietan esandakoaren arabera, euskalgintzaren aitzindaria den elkarteak, "arrasatearrentzako bilgune eta etorkizunean elkarlanerako oinarri" izaten segitu nahi du.

AMETSAK EGIA BIHURTUZ

1983ko azaroaren 29an eratu zen AED elkarteak. Garai hartako helbururik garrantzitsuena Arrasaten euskaren erabilera areagotzea izan zen. Horri heldu izan diote azkenengo hamabost urteotan. Baita aurrerapen handiak lortu ere. "Lanean hasi ginean, arrasatearren hamarretik batek erabiltzen zuen euskara kalean. Orain kopuru



Hau da AEDren 15. urteurreneko logotipoa.

hori hirukoiztu egin da", aitor-tzen dute AEDko arduradunek.

AEDk herrian izan duen eragina nabaria da. Gazte eta haurrentzako aisialdi eskaintza euskaraz egiten da ia erabat, bailarako hamabi enpresak euskara erabiltzeko mikroplangintzak ezarri dituzte, herriko 106 erakunde euskararen hitzarmenaren bitartez elkarren arteko harremanak euskaraz izateko konpromisoa dute hartua, herri komunikabideak euskaraz dira eta Euskal Herrian berrogeitik gora euskara elkarte sortu dira AEDren ereduari jarraituz. "Orain hamabost urte ametsak besterik ez zirenak, gaur errealitate bihurtu dira. Mugarri hau aproposa da arrasatearrek egindako lana eskertu eta ospatzeko".

OSPAKIZUNA HERRIAN
Ospakizun egitarau zabala

antolatuko du AEDk bere hamabosgarren urtemugarako. Horrekin batera, Txatxilipurdi eta ARKOK bete duten hamarkada ere ospatuko da. Egitarauak dena den, hiru ardatz izango ditu, hiru garaitan egiteko. Maiatzaren 23an eta 24an festa giroa izango da nagusi: musika, hitzaldiak, antzerkia, ibilaldiak eta beste hainbat ekitaldi izango dira herrian.

Besteak beste, Ekin talde arrasatearrak eta Lorelei eibartarrak musika emanaldiak eskainiko dituzte. Arrasateko dantza irakasleekin, dantzatzeko aukera izango da.

Azaroaren 27an eta 28an Herri Komunikabideei Buruzko Jardunaldiak antolatuko ditu ARKOK Arrasaten. Bukatzeko, euskara elkarteek lana jasoko duen erakusketa jarriko da abenduan, *Herriaren Hitza* izenburupean.

Arrasate Musikal

DATORREN IKASTURTERAKO ESKAINTZA



HELDUENTZAKO PROGRAMA BEREZIAK

ATZERATUENTZAKO PROGRAMA

- Musika eta instrumentua (Orff sistema, Aschero sistema).
- Dinamika eta psikomotrizitatea.
- Entzunketak.

KONBOAK

- Rock, pop, jazz musika taldearen erabilera.
- Baxu elektrikoa, bateria, perkusio latinoak, piano modernoa.
- Armonia, jazzak, bat-bateko saioak.

TALDE INSTRUMENTALAK

- Banda
- Orkestra
- Balleta
- Perkusio Taldea
- Tronboi Taldea
- Txistu Taldea
- Ganbera musika

MUSIKA TRESNAK ETA ESPEZIALITATEAK

- Musika hizkuntza
- Historia, Arte, Estetika
- Era musikalak
- Trans eta Repent
- Armonia
- Kantua
- Pianoa
- Soinua
- Klarinetak
- Oboea
- Saxofoia
- Fagota
- Tronpeta
- Flauta
- Bonbardina
- Gitarra
- Bateria
- Biolina
- Biola
- Biolontxeloak
- Kontrabaxua
- Baxua
- Tronpa
- Sorkuntza

Adina: 4 urtetik aurrera

Matrikula epea zabalik (Plaza mugatuak)

Maiatzaren 18tik ekainaren 20ra arte

Lanegunetan, 17:00etatik 20:00ak arte

**ORAIN DA
ZURE AUKERA.
ZATOZI!**

Arrasateko erretiratuen etxeak 4.000 lagunen bilgune dira

Erretiratuen etxeak lau dira Arrasaten, baina leku faltaz kezu dira etxeetako ardura-dunak. Uste baino talde handiagoa da erretiratuek osatzen dutena, eta horren arrazoiak bi izan litezke: aurre erretiroa hartzeko aukera eta bizi iraupena.

URIBARRIKOA

Musibarretik hasi eta Gesalibarreraino dauden auzoetako nagusiek Erguinen dute etxea. Dena den, Garagartza, Gesalibar eta Udalako erretiratu gutxi joaten da hara. Erretiratu hauentzat hain zuzen ere, zer edo zer antolatu nahi dute auzoetan.

Bestalde, irailean Urribarriko erretiratuak lekuz aldatuko dira, Erguineko etxea urrun dagoelako eta sarbide txarra duelako. Irailera Usaetxe plazako gizarte zentruan izango dute egoitza. Etxearen %70 erretiratuentzako izango da.

TOKI-ARGI

Santamaina, Obenerreka, Santa Teresa eta Makatzeko erretiratuak joaten dira Toki-Argira. Etxe horretan 600 bazkide dira. Horieta-tik hirurogeita hamar lagun 80 urte gorakoak dira. Leku faltaz ez dira kexatzen, baina bai instalazioek duten itxuraz.

Lehen ikastola bat izan zen etxea, baina harrezkero ez da aldaketarik egin. Erretiratu horiek margotzea eta beste zenbait egokitzapen egitea gustatuko litzaieke, baina dirurik ez dutela diote.

ABAROA

Abaroa da bazkide gehien

dituen etxea. Erdialdeko eta San Andresko erretiratuak biltzen ditu: 2.167 guztira. Bazkideez gain, beste leku batzuetako erretiratuak sar daitezke, bazkide batekin joanez gero. Hori dela eta, astebukaeretan toki arazoak izaten dituzte, jende asko erdialdera etortzen delako.



Musakolan jaietan

Musakolako etxeak bi gela besterik ez ditu. 566 bazkiderekin, beharrezkoa ikusten dute etxe berria eraikitzea.

San Isidroak gainean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte auzoko jaietarako: gaur bolo txapelketa eta gauean, 65 urte gorakoentzako afaria izango da. Erretiratuen eskulanak egoitzan jarriko dira ikusgai.



Parques y Jardines

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Lorazaintzako
mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

San Frantzisko Xabiar ikastolako txikienak, aittajaunekin eta amandreekin lehiatu ziren, ikastolako kultura astean antolatutako olinpiada berezietan. Asmoa zera zen: omenaldi txikia egitea umeekin hainbeste denbora pasatzen duten aittajaunei eta amandreei. Nagusiek jolasten ere badakitela erakutsi zuten.

AITTAJAUN ETA AMANDREAK BILOBEKIN LEHIAN



Rekarte, Aldeondo eta De Pedro jokalariek mahai inguru interesgarria eman zuten joan den astean Eskola Politeknikoan, Iñaki de Mujika kazetariaren laguntzarekin. Futbol gaineko istorioak eta zelai kanpoko kontuak azaldu zituzten umore onean. Sekulako giroa sortu zen jokalarien eta entzuleen artean. Eskolako ikasleen galderak kazetari profesionalenak baino konprometigarriagoak izan ziren askotan.

OBDULI ANSOATEGIRI OMENALDIA

Hamasei urterekin neskame joan zen Bilbora. Sukaldari laguntzaile lanetan hainbat urtez ibili eta gero, Arrasatera itzuli, Julio Mendizabalekin ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituen. Bizkotxoak baino ezagunagoak egin ziren bere etxean ematen zituen sukaldaritza ikastaroak, eta bere postreak sekulako ospea hartu zuten. Egindako lanak merezi zuen esker ona. Zorionak Obdulii!



Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 79 22 70

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak


Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 ▪ Tel: 79 48 77 ▪ ARRASATE



PIM, PAM, PUM!

Kaiolako galeperren tiraketa egin zen San Kristobalen joan den larunbatean, Leintze Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatuta. Irabazle bat baino gehiago izan zen, baina Ibai Oruna izan zen gazteena. Urdaiazpikoa eta dirutza ederra eskuratu zituen!

IZENA

Zigor Gartzia

23 urteko arrasatear gazte honek kirol materialak euskaraz sortzeko diru laguntza eskuratu du. Deba Bailarako Euskara eta Kirol zerbitzuak eskaintzen ditu beka hauek. Zigorrek, kirol alternatiboen inguruko lana egin beharko du bost hilabeteetan. Badmintona, indiaka, frisbia, irristaketa eta malabaren inguruko material didaktikoa prestako du. Zigorrek Irakasle ikasketak egin zituen soinketa espezializatean Gasteizen. Gaur egun hantxe ari da irakasle.



URREZKO EZTEIAK

Milagros Barandiaran eta Felix Ajuriak urrezko ezteiak ospatu zituzten joan den apirilaren 25ean. Meza Zigorrolan egin zuten eta bazkaria Bedoñan. Tartako kandelak itzali eta gero, opari mordoia jaso zuten. Zorionak bioi!



**KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka, 5 bis
Tel.: 77 09 92 / Faxes: 79 78 14
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea
Tel.: 78 21 82
OÑATI



Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

Maiatza herrian

Joxe Bixente Etxaberen aita-jauna, Eskoriatzako Marin auzokoa, ardiekin zebilen mendian, sekulako elurteak harrapatu zuenean. Menditik jaitsi behar izan zuen ardiekin eta Arrasateko Musibar baserriaren inguruan paraje ederra aurkitu zuen aterpea hartzeko. Joxe Bixenteren amandrea alargun zegoen baserrian, marindarra ezagutu zuenean. Handik gutxira ezkondu egin ziren eta harrezkeroztik ardiak izan dira beti Musibar baserrian. Ehun eta hogeitau urte pasatu dira egun hartatik.

Aitajauna artzain, aita artzain eta Joxe Bixente bera ere artzain. Artaldea eta lurrak izan dira belaunaldiz belaunaldi utzitako senipartea. “Ni eskolan ibili nintzen, Gorroñogoitia eta horiekin guztiek—gogoratzten du Joxe Bixente Etxabek—, baina hamabi urte betetakoan mendira igo nintzen ardiekin. Hasieran izan nituen nire gorabeherak eta lantegian hasteko gogoia ere bai. Azkenean, ardiak zaintzea nire bizi-modua egin nuen. Gustura nago eta ez naiz hartutako erabakiaz damutzen”.

Artzainak bi sasoiaren arabera egiten du lana. Neguan artaldea baserrian eta inguruko zelaietan gordetzen du. Egunero, goizeko zortziak aldera jaiki eta jetzi egiten ditu ardiak. Esnearekin gazta egitea da errentagarriena, nahiz eta elaborazioak lan gehiago eman, esnea saltzen baino diru



Joxe Bixente Etxabek Degurixa aldera eraman ditu ardiak sasoi honetan. San Petri arte hantxe ibiliko da.

gehiago ateratzen delako. Bildotsak kendu egiten dira eta zortzi bat urteko ardiak ere bai. Dena den, ardiaren okela oso merkea da: 20-25 kilo kanalean 3.500 pezeta inguru kiloko.

Udaberria gogor lan egiteko sasoi da, orduantxe jaiotzen baitira bildotsak. Ardiak antzutu eta gero, libreago dabil artzaina. Eguraldiak berotzen

duenean, maiatzeko lehenengo egunetan, artzainak artaldea hartu eta mendian gora egin behar du. San Petri ingurura arte, artaldearekin geratzen da artzaina mendian.

FRESKOTASUNAREN BILA

Ardi latxentzat bero handiegia egiten du udaberritik aurrera behe aldean. Fresko egon

beharrak mendirantz bultzatzen ditu. Joxe Bixentek—dagoeneko mendian—bere 120 ardiak hartu eta Degurixara eramaten ditu. Sei hilabete egiten dute ardiek larrean. “Bazka izanez gero, ez dute inongo arazorik—dio Joxe Bixentek— Gaue-ro leku berean lo egin eta egunero ibilbide berean ibiltzen dira. Haizea nondik jo, hara doaz ardiak. Puntu batean hasi eta buelta”.

San Petri inguruan artzaina menditik jaitsi eta han uzten ditu ardiak. Hasieran, sarritan joaten da ardiak nola dabilzan ikustera. Gero urritu egiten da maiztasuna. Azkenengo bi hiletan Kurtzebarri barrenera eramaten ditu ardiak Joxe Bixentek,

“Ardia gutxitu egin da asko eta geratzen diren artzain apurrak mutil zaharrak dira, atzenengo urteetara heldu direnak”

ardiak mendian

Korueta aldera. Han ibiltzen dira baserrira itzuli arte.

Mendian dabiltzala, gertatzen da ardi bat edo beste zuloren batean sartu edo haitzetatik behera jaustea, baina artaldea beti batuta ibiltzen da.

Usainagatik eta itxuragatik ezagutzen dute elkar. Ez dira galtzen edo beste artalde batzuekin nahasten. "Ardiak argiak dira. Nahiz eta mila ardi nahastu, euren artaldean elkartuko dira berriro". Joxe Bixentek ere ederto ezagutzen ditu bere ardiak. Denek dute izena: *Bonita, Xori, Arrupe, Pittiki, Gorriko...* Mila ardi artean ere, ederki ezagutuko lituzke bereak. Eta ardiek jabea, noski. Artzainaren txistua entzunez gero, berehala joaten dira beragana. Artzainak eta artaldeak elkar ulertzen duen taldea osatzen dute.

ARTZAIN ESKOLA

Arantzazun artzain eskola bat zabaldu berri dute. "Ez dago gaizki hori. Hor daudenak ez dira izango profesionalak arditan eta ondo etorriko zaie —dio Joxe Bixentek—. Entzun dudanez, etxean ardiak dituzten lagunak dira, batzuk Hego Ameriketatik etorritakoak". Egia esan, artalderik ez duena artzain egitea oso zaila da. Ardiak erosteko, dirua, larreak eta txabola gutxienez behar dira. Akaso horregatik, gero eta gutxiago daude.

Artzainak badu zer ikasirik Joxe Bixenteren ustez "lehenengo ardiak ezagutu behar ditu. Badira artzainak bere ardiak ezagutu ahal izateko margotu egiten dituztenak. Hori tristea da. Nik

hemendik Araotzeraino zeuden ardi guztiak ezagutzen nituen. Zein ardi zein artzainena zen nekien".

ETORKIZUN ESKASEKO LANBIDEA

Joxe Bixentek ez du bat ere argi ikusten artzaintzaren etorkizuna.

"Ardia gutxitu egin da asko eta geratzen diren artzain apurrak mutil zaharrak dira, atzenengo urteetara heldu direnak". Beste kontu garrantzitsua mendiaren egoera da. "Gure gazte denboratik hona,

mendia asko hondatu da. Mendi barren guztietan lehen ikatzak egiten ziren eta horrela mendia garbitu egiten zen. Orain pago asko dago eta ez dela bota behar esaten dute, baina ez bada mozten, pertsoneri pasatzen zaiguna gertatuko zaie: zahartutakoan, hil. Artzaintza ere bere azkenetan dago".

Ikuspegia ez bada oso baikorra ere, artzaintzak denborarekin, hobera egin duela dio Joxe Bixentek. "Aurrerapen teknikoek asko erraztu dute gure lana. Lehen prentsa barik

egiten genuen gazta. Gaztaren kalitatea ere asko hobetu da. Ardiak ere gutxiago gaixotzen dira. Análisiak egiten zaizkie, txertoak eman... Lehen ez zegoen pentsurik, eta larrean belarrik ez zegoenean, bizitzen zena bizi eta akabatzen zena akabo".

Aurrerapenak aurrerapen, artzaintza hiltzorian dago. Gure bailaran ia artzainik ez da ikusten. Arrasaten hiru bakkarik daude. Belaunaldi gazteek izango dute azken hitza.

Marian Porcel



Artzain onak ardi guztiak ezagutzen ditu, ezaugarri fisikoengatik eta izateko eragatik bereizten ditu.

Ikastaroa

Ezagutza pertsonala:
Autoestimua

Noiz: Maiatzaren 25etik uztailaren 2ra arte
astelehen eta ostegunetan

Ordutegia: arratsaldeko 16:45-18:45

Emailea: Pepa Boj6

Argibideak: Emakume Saila
Tel: 79 09 00



ARRASATEKO UDALA

Antolatzailea: Emakume Saila ■

@mets gaua

Monterron parkean
Maiatzak 23, Larunbata
Gaueko 10:00etatik aurrera

Arrasate Dj

NAUN

(Donostia)

Imanol Dj

2KATE

(Donostia)

Arrasate Dj

EKON

(Arrasate)

Imanol Dj

Musika motak: Ambient, Jungle, House, Techno, Dub....

Proiekzioak (Bartzelona)

Impaktes Visuals

Amets eguna

Maiatzak 24, Igandea
Goizeko 10:30etatik aurrera

Zaldibar gunea

10:30etatik aurrera Kale animazioa
• Zarpantzarrak • Kalejira trikitilariekin • Txaranga
12:00etan Aurkezpen ekitaldia
• Herrialde desberdinetako dantzak eta jaki dastaketa
• Bertsolariak
14:30etan Bazkari herrikoia trikitilariekin alaitua
18:00etatik aurrera ETZAKIT musika taldea

Jokin zaitegi barruko gunea

17:00 etan IPARRALDEKO HERRI KIROLEN ikuskizuna
Partaideak: Lapazaran - Arrate eta Mugarteri- Gotzon Mugarza I
Probak: • Lastoa jasotzea • Irtonza
• 6 metrotara • Aizkoran 2 karte 6
• Lastoa botatzea alturan • metrotako alturan
• Junguria • Sakueak bizkarrean
• Gurdia • dituztela karperak

18:30etatik aurrera SALTSA, MERENGE, TANGO, BALS,....
IKASTARO eta DANTZALDIA
Dantzariak: • Julio Lantigua • Natalio Maiztegi
... eta Jarratzaileak

Jokin zaitegi kanpoko gunea

11:00etatik aurrera TXIKITXOKA egun osoan zehar
• Kars-ak • Monkey gaztelua • Eskulan txokoa
• Zezen mekanikoa • Pelotadun etxetxoa • Musika alaia
• Trentxoa • Gaztelu animatua • Goxotxoko
• Igel puzgarria • Amonamantagorri • ...

Biteri gunea

13:30etan TRIKIMAILU EXPRES taldearen haur berbena
17:00etan Arrasateko NOMEN taldea
18:30etan LORELEI musika taldea



Ametsa Eraikiaz Doa

Zenbat diru ordaintzen dugu hildakoengatik?

Gaurkoan kalkulatu egingo dugu San Felipe Apostol elkarteke bazkide bat hiltzen denean, zenduaren familiak zenbat diru jarri behar duen, San Felipe Apostol elkarteak ordaintzen dizkion guztiak kendu eta gero.

Arrasateko familia normal bat hartuko dugu. Senide bat hiltzen zaienean, erabakitzen dute Loiolako

Herri Irratian iragarki bat sartzea, heriotzaren berri emateko. Baita eskela txiki bat jartzea *Diario Vascon* eta *Egunkarian* ere. Argazki eta guzti jarri nahi bada, mezulariz bidali behar da. Lore koroa bat erosten dute, hilkutxarekin batera eramateko. Udaltxean hilobi bat alokatzen dute, hamar urterako. Hilari soil bat ere erosten dute,

hilobi ganean ipintzeko. Familia gehienek egiten duten modura, oroigarri batzuk ateratzen dituzte, koloretan, lagunen artean banatzeko. Zenbateko gastutan sartu dira? 244.517 pta.tan.

Horri kentzen badizkiogu San Felipek emandako 45.000 ptak, familiak ia 200.000 pta. ordaindu du hildakoaren kontura.

Hildako baten kostua

	PTA
• Iragarki bat Loiolako H. Irratian	10.450
• Eskela txiki bat DVn	33.650
• Eskela txiki bat E. Egunkarian	27.260
• Argazkia bidaltzeko mezularia	1.857
• Lore koroa	20.000
• Hilobia hamar urterako	76.300
• Hilarrria	58.000
• 200 oroigarri koloretan	26.000
	244.517
• San Felipe Apostolen ekarpena	- 45.000
	199.517

Euroa

Egin liteke orain kalkulurik, jakiteko zenbat kostatuko diren eurotan:

- litro bat esne (85 pta)
- kafe bat (125 pta)
- tel. txartela (1.000 pta)
- ogi bat (60 pta)
- kaxa bat tabako (360)?

Euroak aste honetako balioa izango balu, hau da, 167,1 pta, litro bat esne 0,50 eurotan aterako litzaiguke; kafea 0,74 eurotan; telefono txartela 5,98 eurotan; ogia 0,35tan eta zigarroak 2,15 eurotan.



Euro baten balioa

167,1 PTA



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA



DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Naranja Mecanica	2	2	0	0	14	9	4
Branka Taberna	2	1	0	1	14	15	2
Fraguel Gol	2	1	0	1	7	8	2
Ac Surkos	2	0	0	2	9	12	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	2	2	0	0	13	6	4
Lorategi Potroak	2	1	1	0	6	4	3
Aurrera Bolie	1	0	1	0	5	6	1
Pepelus	2	0	0	2	5	13	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Bar Estrella	2	2	0	0	7	4	4
Argi Ibili	2	1	0	1	11	5	2
Jotakabau	2	1	0	1	5	11	2
Garaje Oskar	2	0	0	2	4	7	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Aldibi	2	2	0	0	12	3	4
Koka Juniors	2	1	0	1	7	8	2
Sokoakoak	2	1	0	1	6	8	2
Los Heredia	2	0	0	2	4	10	0

Emaitzak

A Taldea

Naranja Mec. 5 - Fraguel Gol 3
Ac Surkos 6 - Branka Tab.8

B Taldea

Argi Ibili 3 - Bar Estrella 4
Garaje Oscar 3 - Jotakabau 4

D Tadea

Irati STS 3 - Aurrera Bolie 2
Lorategi Potroak 3 - Pepelus 3

E taldea

Aldibi 6 - Koka Juniors 1
Sokoakoak 4 - Los Heredia 2

Hurrengoak

Maiatzak 16, larunbata

11:00 Argi Ibili - Garaje Oskar
12:00 Irati STS - Lora. Potroak
16:00 Aldibi - Sokoakoak
17:00 Aurrera Bolie - Pepelus
18:00 Naranja Mec. - Ac Surkos
19:00 Fraguel Gol - Branka Tab.

Maiatzak 17, Igandea

11:00 Koka Jun. - Los Heredia
12:00 Bat Estrella - Jotakabau



Ikusle oso berezia egon zen Zaldibarren. Hala ere, ez dirudi interes handirik zuenik.

Aldibi

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

Uribe auzoa txapelketa

Emaitzak

A taldea

Rotor Bolbo. 3 - Kom. Alpar. 10
Elvis Team 3 - Zigarro. Mutil. 3
Babajana Sexy 1 - Dribling 7
Piemodoiuna 2 - Bar Nuevo 10
Sporting de Tronp. 0 - DBK 1
Milan Tokao 1 - Trotabares 0

B taldea

La Ostra Azul 1 - Leya TMT 0
Fraguel Gol 0 - Balon Rojo 1
Cartonajes Igamo - Xhaass...
Potrosorri 0 - Lontxo Taberna 1
Mr Magoo 2 - Spoting 15
Medio Grano 1 - Kamasutra 7

D taldea

Doble Cero 1 - Decadencia 3
Txotx 2 - Borrock & Roll 3
Akta 0 - Hilarion Jatetxea 1
Astoen Villa 5 - Munar Txiki 5
Rex 22 4 - Blind 3
Bortxitxak 1 - Pening Lapsus 0

E taldea

P3000 6 - Itxaro Pena 3
Milagro Bau. 1 - Racing Mol. 6
Argi Plastic 15 - Kalandrax 4
Felpudo Mald. 1 - Alai Gozoki. 0
Mendizab. P 4 - AC Massive 3

Hurrengo partidak

Maiatzak 16, larunbata

Iturripe A
10:00 P3000 - Ac Massive
11:00 Milan Tok. - Kom. Alpa.
12:00 Carton. Igamo- Lontxo.
13:00 Felp. Mald. - Itxaro Pena
14:00 Txotx - Hilarion Jatetxea
15:00 Rotor Bolbo.- Zigo. Mutil.
16:00 La Ostra Azul - Balon Rojo
17:00 Bar Nuevo - DKB
18:00 Astoen Villa - Blind

Iturripe B

13:00 Mendizabal- Rac.Molo.
14:00 Doble Ce. - Borrock & Roll
15:00 MR Magoo - Kamasutra
16:00 Piemod. - Babajana Sexy

17:00 Elvis Team - Dribling
18:00 Bortxitxak - Decadencia

Atsedena:

B Taldea: Medio Grano, Epoting, Xhaasss


D Taldea: Rex 22, Munar Txiki

E Taldea: El Milagro., Argi Plastic, Kalandrax

ARKAUZ

sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
- Liderrak muntaketan
- Betiko muntaketak



Mitarte, 3 • ARETXABALETA • Tel. / Faxe: 77 04 55

**ERAKUSKETA
BERRIZTUA!**

**ALTZARI-DISEINUA
ETA APAINKETA**



**ZAPATU
ARRATSALDETAN
ZABALIK!**

Grupo Arkauzen denak dira abantailak.

Zatoz, eta daukaguna ikusi bezain laster, etxera eraman nahi izango duzu.

Aprobetxa itzazu Grupo Arkauzen abantailak.

A R E T X A B A L E T A

Araba etorbidea, 20 • Tel./Faxe: 79 23 51

JMA taldeko txirrindularia


AITOR PAVON

“Horrela segitzen badut, gustura ibiliko naiz”

— **Nola doa denboraldia?**
— Nahiko ondo ari naiz, horrela segitzen badut gustura ibiliko naiz.

— **Gogorra da bizikleta?**
— Bai, batez ere goizerokoa: jaiki, goserik gabe gosaldut, beste herri batera joan... Hala ere, lagun artean gabiltzanez, oso giro polita sortzen da eta horrek arintzen du piskat konua.

— **Noiz hasi zinen bizikletan?**
— Orain dela hiru urte. Aitarekin ibiltzen nintzen. Gero lagun batzuk animatu eta eskolan hasi ginen.



— **Mendiko bizikleta ala errepidekoa?**

— Errepidekoa. Badira eskolan mendikoa atseginago dutenak, baina ez dakit hemen talde iraunkorrik dagoen. Zaila ikusten dut gure mailan mendiko bizikletako talde batekin lotura egitea.

— **Txirrindularitzak jarraitzaile asko ditu?**

— Jende dexente ibiltzen da. Gehienak gurasoak izaten dira, baina bestela ere joaten da jendea.

— **Neskarik baduzue taldean?**

— Gure eskolan ez, baina lasterketetan bai. Gu baino bi urte zaharragoak dira eta egurra ematen digute askotan!

— **Profesionaleko zein talde-tako zuzendariri begiratzen diozu?**

— Ez dut inoiz pentsatu, baina txikitatik entzun dut Manolo Sainz. Guk bizikletei begiratzen diegu gehiago, zer nolako gurpilak dituzten, kanbioak eta honelako gauzak.

FUTBOLA Mondra berriz garaile



3 eta 2 irabazi zuen preferente mailako Mondra taldeak. Atxabalpen jokatu zuen asteburuan Zestoaren aurka. Mondrakoek ez zuten sailkapeneko bigarren tokia lortzeko aukerarik galdu nahi eta azkenean lortu zuten markagailuan aurreratzeari. Liga amaitzeko hiru partida gelditzen dira. Datorren astean, Anaitasunaren aurka arituko dira. Partida hau ere, erraza izan daiteke, aurreko itzulian 1 eta 0 irabazi zuten eta.

Kopa txapelketako bigarren partida jokatu zuten igandean Esti Loitiren neskek. Añorgaren aurka jokaturako partidaren 4 eta 1 galdu zuten. Bigarren zatian hobeto aritu ziren arrasatearrak, baina añorgatarrek hamar minutuan hiru gol sartu zizkieten. Datorren asteburuan atsedena izango dute eta hurrengoan Gernikara joango dira itzuliko partida jokatzera.

TXIRRINDULARITZA Asier Atxa bikain



Gogor aritu dira Fagor taldeko gazteak asteburu honetan. Larunbatean Arantzazuko igoeran izan ziren eta igandean, berriz, Mutrikun. Arrasatearren artean, Asier Atxa izan zen onena. Arantzazuko igoeran, Asierrek 12. tokia lortu zuen. Igandean Mutrikun izan ziren eta Atxak, bosgarren lekua lortu zuen. Datorren astean Elgoibarren izango dira, Elgoibarko XVIII. saria lasterketan.

JMA taldeko lehen mailako kadeteak Urrietako las-

terketan izan ziren. JMA taldean Danel Lazkano eta Aitor Pavon izan ziren onenak. Lazkanok zenbait ihesalditan ibili bazen ere, lasterketa sprintean amaitu zen. Datorren larunbatean Zarautzen arituko dira, arratsaldeko 16:00etatik aurrera.


KARATE Euskal Herriko hirugarren



Karate taldea ere emaitza onak lortzen ari da aurtengo denboraldian.

Euskal Herriko txapelketako hirugarren tokia lortu zuen orain dela hiru asteburu. Iaz lehenak izatea lortu zuten arrasatearrek. Aurten, berriz, Ginyan gasteiztarrekin berdindu dute, hirugarren geratuz. Azkoitia izandako txapelketaren ondoren, Leonera joatekotan dira karateka arrasatearrak. Hilaren 16an eta 17an jokatu da senior mailako Espainiako Karate Txapelketa. Arrasateko hiru talde abiatuko dira Leonera, titulu lortzeko asmotan.

PILOTA Hirutik hiru galdu



Donostiaren aurka aritu ziren arrasatearrek Herri Arteko Binakako Pilota Txapelketan.

Donostiarren mailari ezin eutsi eta hiru partidak galdu zituzten. Datorren ostiralean, Alzan izango dute itzuliko partida, baina Mauri Zubillagak adierazi digunez, “donostiarrek maila oso ona dute eta oso zaila izango da markagailuei buelta ematea”. Donostian galdut gero, txapelketatik kanpo geldituko dira arrasatearrak.

San Isidro pilota txapelketa

Musakolako jaietarako, San Isidro I. Pilota Txapelketa antolatu dute auzoko pilotazaleek. Hiru pilota partida jokatu dira larunbatean Musakolako kiroldegian. Buruz burukoan, *Langa* "Beneraseko Txikia" eta Faustoto "Valdecarrosekoa" arituko dira. Dударik gabe, partida ikusgarria izan daiteke bi pilotari hauen artekoa. Langak urteak daramatza pilotari lotuta eta Valdecarroko Faustok ere, ez ditu urte gutxi egin pilotalekuan. Bi veteranoen arteko norgehiagoka goizeko 11:30etan hasiko da. Ondoren eskuz binakako partida etorriko da. Beitia "Ziorlako Txikia" eta Vitoria, Txispas "Morales" eta Ikutixo "Kasero" ren aurka arituko dira.

Jose Angel Langaran, *Langak*, adierazi digunez "pilota partida ikusgarriak izan daitezke. Honelako saioekin gure gastuak estali nahi ditugu. Polita izango litzateke jende asko etortzea. Guztiok gara ezagunak, auzoan zein herrian, eta artekaria ere ibiliko da, apustuak egiteko".

Tena, lehenengo arrasatearra

Jose Manuel Tenak herriko lehen txirrindulariaren saria lortu zuen San Isidroetako XIV. Sarian. Eguraldia lagun zutela abiatu ziren JMA taldeko txirrindulariak, Gipuzkoako beste herrietatik etorritako txirrindulariekin batera. Musakolatik atera eta Esko-

riatzara bidean hasi ziren lehen ihesaldiak. Oso lasterketa bizia izan zenez, sprintean erabaki zen garaipena. Jon Mikel Gonzalez Tradipa taldekoa izan zen lehena helmugan. Haren atzetik, I. Amantegi taldeki-dea iritsi zen. Lasterketaren 54,5 km.ak egin zituen lehe-

nengo arrasatearra, JMA taldeko Jose Manuel Tena izan zen. Datorren astean, bigarren mailako kadeteak Urrietako lasterketan arituko dira. Proba igandean izango da, arratsaldeko 16:00etan. Txirrindulariek 45,5 km. egin behar dituzte helmugaraino.



J.M. Gonzalez, I. Amintegi eta J.M. Tena saria jaso ondoren.

ABENTURAZ BETERIKO HIZKUNTZA

**Oporrak gozatzuz,
ingelesa mintzatzuz!**

• **Espainian :**
Madril, Cazorla-Segura, Costa Brava-Girona, Galizia-Rias Baixas eta Sierra de Gredos

• **Hizkuntza ikastaroak atzerrian.**

• **Atzerrian BUP eta COU ikasturtea :**
Estatu Batuetan eta Britainia Handian



Garibai, 6-B • ARRASATE • Tel.: 77 11 06



BAZTER-ALDE

J A T E T X E A

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • ARETXABAETA

Tel.: (943) 79 24 58

ANGELINES CASTELLANO (GIZAKIA HELBURU)

“Gure kasuan, drogak erab

Alabaren drogazaletasunak erabat astindu zuen bere bizitza. Alabak laguntza behar zuela konturatu bezain laster, buru belarri sartu zen Gizakia Helburu egitasmoan, ahal zenean laguntzera. Alaba hil eta gero ere erabat sartuta dabil berak aurretik nozitu-takoak sufritzen ari direnei laguntza ematen: Angelines Castellano musakolarra.

— Noiz hasi zinen Gizakia Helburu proiektuan?

— Irailean hamar urte beteko dira. Bederatzi hilabetez aritu ginen, nire alabaren jarraipena egiten. Horrek esan nahi zuen hogeita lau orduz zaindu behar genuela. Jarraipen ona eginez, izugarri lagun dakiokoe gaisoari. Esango nuke hori dela pro-

gramaren oinarria. Bederatzi hilabete pasatu genituen horrela. Ondoren *komunitate* deitzen den aldia igaro behar izan genuen. Dagoeneko ez dute horrela lan egiten, baina gure garaian, alabak beste bederatzi hilabete egin behar izan zituen Gizakia Helburu proiektuak gazteentzako duen etxe batean.

— Gogorra izan zen esperientzia hura?

— Gogorrena jarraipena egitea izan zen. Izugarri nekatu ninduen; hala ere, uste dut beharrezkoa izan zela nire alabari lagundu ahal izateko. Gainera, askotan esan behar

izan nion ezetz. Ez dakizu zein gogorra den alabari beti ezetz esan beharra, baina orain konturatzen naiz oso indartsua izan nintzela. Honekin batera, oso

garrantzitsua izan zen familia bateginik egotea. Nire kasuan, drogak batu egin gaitu; bai nire beste semeak zein nire gizonak, alabaren gainean geunden. Haren arazoak erabat batu gintuen.

— Zein urrats egin zenuen ondoren?

— Nire alabari laguntzen bi urte egin nituen. Graduatu zutenean, norik bere buruari laguntzeko taldeak eramateko prestatu ninduten. Egokia iruditu zitzaidan nire arazo bera zuten beste guraso batzuei laguntzea. Nik jaso nuen laguntza emateko



“Ez dakizu zein gogorra den alabari beti ezetz esan beharra, baina orain konturatzen naiz oso indartsua izan nintzela”

bat batu zuen familia”

aukera eskaini zidaten eta ez nuen zalantzarik izan. Neuk ere lagundu beharra sentitu nuen.

— **Zer ikasi duzu lan honekin?**

— Balore asko berreskuratzear gain —zintzotasuna, apaltasuna...—, oso gauza garrantzitsua ikasi dut: aditzen. Hau da, entzun denok egiten dugun gauza da, baina oso gutxi aditzeko ohitura. Eta arazo honetan, beste askotan bezala, oso garrantzitsua da aditzen jakitea. Mundu horretan ari naizenetik, nire aurreko berrogeita hamar urtetan baino gehiago heldu naiz. Mundu horretan ikusi eta ikasitakoagatik ez balitz, ez dut uste nire burua horrenbeste ezagutzera helduko nintzatekeenik.

— **Zein da gurasoekin egiten zenuen lana?**

— Seme-alabaren bat dro-

garen hatzaparretan zutenekin lan egiten nuen. Astean behin bildu eta elkarri entzuten genion. Esan behar zuten guztia esaten utzi behar zaie, eta bukatu arte itxaron. Oso garrantzitsua da ez moztea.

— **Zertaz gogoratzen zara alabarekin bizi izandako eskarmentuaz?**

— “Oraindik droga gustatzen zait”, esan zidan proiektuaren azken aldiaren amaieran. Erabat lurjota geratu nintzen. Baina berehala “oraindik gustatzen zait, baina orain

badakit kontrolatzen” esan zuen, Niretzat oso garrantzitsua izan zen berari hori esaten entzutea.

— **Zertan zabilta orain?**

— Laguntza psikologikorako talde batean nago. Sendiren bat galdu dugunok osatzen dugun taldea da eta galera horren onespina lortu nahian biltzen gara. Nik bide hori egina daukat nolabait eta nire esperientziak lagundu egiten die beste gurasoei. Horrez gain, hilzorian dauden HIES-dun gaixoei laguntzeko pres-

tatzen ari naiz. Orain dela hilabete bat ikastaro bat egin nuen horren inguruan. Orain, bada, bi talde horiekin ari naiz.

— **Asko aldatu dira gauzak zu hasi zinenetik?**

— Dagoeneko ez dago horrenbeste heroinazale. Gaur egun gehiago ikusten dira pilulak. Gainera, drogazaleak ere aldatu egin dira. Heroinazale denari berehala antzematen zaio, baina gaur egun, drogazaleak “dotoreagoak” dira. Badirudi ez daudela hain gaizki ikusita.

— **Horrenbeste lan egin eta gero, zer mezu bidali nahiko zenieke mundu horretan ari direnei?**

— Itxaropeneko mezua bidali nahiko nieke. Eta, bide batez, drogaren hatzaparretatik ateratzeko esan. Atera daiteke. Ez da itxaropenik galdu behar. ■

“Nik jaso nuen laguntza emateko aukera eskaini zidaten eta ez nuen zalantzarik izan. Neuk ere lagundu beharra sentitu nuen”

ERRENTA AITORPENA 97

Informatu. Aukerak aztertu.


Dena profesionalen esku.

Denboraz eta paper barik.



Zenbaki

Basabe Industrialdea, C Pab. • ARETXABALETA • Tel.: 943 - 71 21 12 • Faxa: 943 - 71 22 68



Aldez aurretik deitu !

TELEMATIKA:

aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.



Jon Anduezaren "Bernar" film laburra amaituta

Telebista aurrean jarri eta norberak idatzi, zuzendu eta egindako filma ikustea zirraragarria izan behar da. Lan eta neke askoren fruitua azkenean hor, pantaila aurrean.

Jon Anduezak dio, *Bernar* film laburrean parte hartu zutenak urduri zeudela, beldurtuta telebista aurrean jarri zirenean. Pantailan egindako lana lehenengoz ikusi behar zuten. Bide luzea zen une horretara iritsi arte egindakoa, eta asko zen bide horretan ariskatutakoa: ilusioa, ametsak, lana, dirua, zazpiehun mila pezetako inbertsioa...

Hasierako urduritasunen ondoren; besarkadak eta emozioa. Ongi egindako lanaren poza.

Bernar film laburra Jon Anduezak zuzentzen duen taldearen bigarren lana da. *Laugarren Galeriatik* filmatu ostean, taldekideek argi zuten zerbait berria egin beharra zegoela eta buru belarri hasi ziren istorio berria prestatzen: *Bernar*.

Jon Anduezak idatzi duen istorioan Down sindromea duen mutil bat eta haurdun



Jon Anduezaren *Bernar* film laburreko aktoreak Gorka Zufiaurre eta Miren Gojaola dira

dagoen neska bat hondartzan elkartu, eta elkarrekin igaroten dute eguna.

Filma hondartzan kokatzea erronka galanta izan da lantaldearentzat. Aurreko lana barnean grabatu zuten guztia. Horregatik, kanpoan grabatzea apustu berria zen. Asteburuak aprobetxatuz, hiru astean zehar trasteak hartu eta taldea Santander eta Lagako hondartzara joan da filamaketa egitera. Eguraldiak buruhauste

dexente sortu zien, baina azkenean nahi zutena lortu dute. Jon Andueza zuzendariak, dioenez, ez da lan samurra izan: "bidean zalantza ugari eta depresio puntu bat ere izan nuen. Batzuetan badirudi gauzak ez daudela zuk nahi moduan. Baina orain, lana eskuartean, pozik nago".

Jon Anduezak dio ilusioa zuela urritasun apur bat duen aktore batekin lana egiteko. Horrela ba, *Bernar*, Down

sindromea duen mutilaren gorabeherak kontatzen ditu filman. Aktorea Gorka Zufiaurre izan da, eta Jonek dioenez, oso aberasgarria eta pozgarria izan da harekin lana egitea.

Filma amaituta, orain beste lan bat dute aurrean: *Bernar* herriz herri aurkeztea. Horretarako euskara elkarteren laguntza jasotzea espero dute, euskarazko filmeen zabalkundean zubirik egokiena izan daitezke eta.

Fruitu eta barazki freskoak

Zerbitzu
ezin hobea!
Tratu atsegina

Enkarguak
etxera
eramaten
ditugu



Etxetik gertu eta
aparkalekua
kalekoentzat.

AUPA
Zigorrolako
jaiak

Aranbarri Maisua, 2 behea • ARRASATE • Tel.: 929 45 92 33

AITOR ALBERDI, AEDko FESTAREN ANTOLATZAILEA

Amets egiteko asteburua AEDren festan

AED duela hamabost urte hasi zen euskararen alde lanean. Orduko egoera eta gaurkoa oso bestelakoak dira. Gauzak dexente aldatu dira. Horregatik, aurrean ospakizun urtea da. urte osorako ekitaldiak, jaialdiak eta sorpresaren bat edo beste antolatu dituzte. Baina egitaraua datorren asteburuan hasiko da. Maiatzaren 23an eta 24an festa handia antolatu dute.

— Ametsa Eraikiaz Doa. Zer dela eta lelo hau?

— AED duela hamabost urte sortu zen, eta orduan ametsa zena gaur, 15 urte beranduago, neurri handi batean, egia bihurtu da. Sortu zenean ametsa zen herrian euskararen normalkuntza lortzea, euskara esparru guztietara zabaltzea. Aurrerapausu handiak egin dira zera horretan. Gauzak ez daude duela hamabost urte zeuden moduan. Bidea luzea da eta egiteko asko dago oraindik, baina leloak dioen moduan, pausuz pausu, *Ametsa Eraikiaz Doa*.

— Datorren asteburua ere badirudi ametsen inguruan mugituko dela.

— Bai, beno, hori da lortu nahi duguna: astebururako festa antolatzea, baina festa berezia. Ametsen leloa erabiliz antolatu dugu guztia. Larunbat gauari Amets Gaua deitu diogu. Gau horretan Monterron parkea amets egiteko eta goatzeko txoko egokia izango da. Ez dugu betiko kontzertu bat egin nahi izan. Kontzertua baino gehiago jaialdia izango da. *Ekon*, *2Kate* eta *Naun* taldeen kontzertuez gain, beste ikuskizun ugari ere izango dira. Disk Jockey-ak izango dira. Hauek gauza ikusgarriak egiten saiatuko dira:



euskal musika zaharrak doinu berriekin nahastuko dituzte, esperimentu moduan. Asmoa da jende gazteari musika mota askotarikoak aurkeztea, jendea musikan hezitzea. Musika mota asko entzungo dira: ambient, jungle, house, techno. Proiekzioak ere egingo dira. *Impaktes Visuals* taldeak hamabost bat proiektore jarriko ditu Monterronen. Beraz, parkearen itxura aldatu egingo da. Ikuskizun berritzailea eta zirraragarria izango da.

— Igandean izango da zer ikusirik eta zer eginik.

— Bai, larunbatekoa jende gaztearentzako festa bada, igandekoa adin guztiei dago zuzendua. Lau gunetan banatu dugu festa. Egun guztian zehar ekitaldi ugari izango da. Herriko elkarte gehienek hartuko dute parte. Arratsalde partean *Etzakit* eta *Lorelei* taldeen emanaldia egingo da.

— Abesti eta guzti kaleratu duzue.

— Bai, abestia hamabost urte hauetan lanean aritu diren elkarte guztiei egindako omenaldia da. Danel Goikoleak idatzi du letra. Abeslaria Andoni Zubiaga da. *Ametsa Eraikiaz Doa* da hemen ere leloa.

Kontzertuak, dj-ak eta Monterronen itxura aldatuko duten proiektioak egingo dira”

aste gazte

■ GAZTEENTZAKO OPORRALDIAK

• 14-17 urte duten neska-mutilentzat, antzerkigintza hastapena, bizikleta ibilaldiak, ur kirolak, espeleologia, ingurugiro ekintzak, hipika, kirol abentura, eskalada, urpeko ekintzak e.a.. Diputazioak antolaturiko kanpaina honetan parte hartu nahi duzuenentzat izena emateko epea: maiatzaren 12tik 26ra.

■ HIZKUNTZA EGONALDIAK

• 14-17 urte bitartekoentzat, Segurako aterpetxean ingeles egonaldiatarako izena emateko epea: maiatzaren 12an hasi eta 26a arte.

■ LANA

• Nafarroako Erkidegoan, arkitektu bat behar da. Epea: maiatzak 24.

• Nafarroako Foru Erkidegoak, psikomotrizistak behar ditu. Epea: maiatzak 27.

■ KIROL IKASTAROAK

• Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak, haitz eskalada ikastaroa antolatu du maiatzaren 23-24 eta 30-31rako, Amezketan, Txindokin eta Eginon burutuko dira.

■ EZAGUTZA PERTSONALA IKASTAROA

• Arrasateko Emakume Sailak antolatua, astelehen eta ostegunetan egingo da, maiatzaren 25etik uztailearen 2 arte, arratsaldeko 16:45ean hasi eta 18:45ak arte.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Zarautzen etxebizitza salgai. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua eta garajea. Prezio onean. Tel.: 943 - 83 54 46.

2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke San Andres edo Uribe Auzoan. Tel.: 943 - 76 05 14 / 943 - 76 44 34

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokatzen da Peñiscolan, udako hilabeteetan. Hamabost egunerako. Kirol gunea, pilotalekua, igerilekua. Tel.: 943 - 79 57 31.

• Laredon apartamentua alokatzen dut San Joanetan edo uztaileko 2. hamabostaldian. Tel.: 943 - 79 31 47.

4. Errentan hartzeko

• Gela baten bila nabil Arrasaten. Tel.: 94-41 62 675. Iñigoz galdetu.

• Bi logelako etxebizitza hartuko genuke alokairuan, Arrasaten. Tel.: 93957 45 31 (Nekane, Unai).

5. Etxe konpartituak

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Logela aparte izango du. Interesatua baldin bazaude, etorri ikustera: Bañez doktorea, 2. 3. ezkerra.

• Gela bat alokatzen da San Andresko etxebizitza batean. Uztailearen erdialdera arte. Tel.: 943 - 79 98 70. (Txema).

GARAJEAK

7. Saldu

• Garajea salgai Roneoko etxeetan. 1. solairuan, garaje itxia. Tel.: 943 - 79 18 70

• Olarte kalean garaje itxia salgai. Tabako dendaren azpian. Tel.: 943 - 79 91 52.

9. Errentan emateko

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 943 - 79 19 64.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean baina Zarugaldetik gertu 100 m²ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 943 - 79 07 24.

• Ile apaindegia saltzen da. Sta. Mariña, 14 behea. Tel.: 943 - 79 73 43.

• Abian dagoen negozioa salgai. Tel.: 943 - 79 34 01.

14. Errentan emateko

• Taberna eskuz aldatzen da. Tel.: 943 - 77 14 93.

• San Andres auzoan dagoen dena jabez aldatu edo saldu egingo da. Errentagarria da. Tel.: 943 - 79 96 39.

15. Errentan hartzeko

• Gazte talde batek lokal bat errentan hartuko luke. Tel.: 943 - 79 53 18. Asier.

LANA

17. Eskaintzak

• Emakume euskalduna behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 - 77 02 81.

• Esperientziadun neska prest goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 - 79 97 81.

• Emakumea prest etxeko lanak egin eta umeak nahiz nagusiak zaintzeko. Arratsalde. Tel.: 943 - 79 07 73.

• Etxeko lanak egin edo pertsona helduak zainduko nituzke. Tel.: 943 - 79 47 29. (12:00etatik 15:00etara).

18. Eskaerak

• Ile apaindegi batek eskuko ile lehorgailua ondo erabiltzen dakien ile apaintzailea behar du. Tel.: 943 - 79 03 63.

• Neska bat behar da jate txeko batean zerbitzari lanak egiteko. Kontrata egingo zaio. Tel.: 945 - 44 50 95.

• Bi ume zaindu eta etxeko lanak

egiteko emakume euskalduna behar da. Tel.: 943 - 77 04 27. Gaeuz deitu.

• Pertsona bat behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 - 77 04 61.

• Neska bat behar da bi ume zaintzeko. Tel.: 943 - 79 78 65 (8:00etatik aurrera deitu).

• Taberna bateko barran lan egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 943 - 79 68 57.

• Neska gertu atariak garbitzeko. Tel.: 943 - 79 20 55. Arantxa.

19. Denetarik

• Suitzara *au pair* joateko neska bat behar da. Frantses apur bat jakitea beharrezkoa da. Tel.: 943 - 79 40 91.

• Enkarguzko margolanak (kuadroak) egiten ditut. Informazio gehiago 943 - 77 01 07 telefonora deituta. Ana.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• DBH eta LOGSEko eskolak ematen dira. Talde txikiak eta irakasle esperientziadunak. Tel.: 943 - 79 56 78.

• Edozein lehiaketatan parte hartu edo Zuzenbideko ezaguerak praktikoak izan nahi duten lizentziatuei (edo azken urteko karrerako ikasleei) zuzendutako praktikak eskaintzen dira. Tel.: 943 - 79 13 09 (13:00etatik 14:00etara).

21. Eskaerak

• LOGSEko 1. mailako ikasle batek matematikako eskola partikularrak hartuko lituzke. Tel.: 943 - 79 68 84.

• Biologiako ikasleak matamatika eskolak behar ditu. Tel.: 943 - 79 42 64. (Gauko 22:00etatik aurrera).

MOTORRA

23. Saldu

• Kart konpetizion pieza askorekin salgai. Tel.: 943 - 77 07 74 lan orduetan eta 77 09 27 gauean.

• 205 GTX SS-Y autoa salgai dago. Egoera onean. Tel.: 943 - 79 68 63.

- Karabana bat salgai dago. Adria Prima 4,10 m.koa. Merkea. Tel.: 943 - 79 18 22.

- Citroën C-15 RE Club salgai. SS-AL. 78.000 Km. 650.000 Pta. Tel.: 943 - 77 07 42.

- Cady motorra salgai, egoera onean. Prezioa ere ona. Tel.: 907 - 94 06 67.

- Motorra salgai. Yamaha berezia 250. Oso egoera onean. Tel.: 943 - 77 05 14. Asier.

- Nissan Terrano edo Ford Maverick autoen llanta orjinalak salgai. Laurak 15.000 pta. Tel.: 943 - 79 40 58. Maider.

- Erremolke eta kanpadenda salgai. Alpen-kreuzer allure modelokoa. Nahiko berria. Tel.: 943 - 79 37 60.

- BI - BF matrikuladun autoa salgai. 110.000 km. ditu eta diesel duna da. Tel.: 943 - 76 09 12.

- Yamaha TZR 80 RR salgai. 17.000 km. VI - O matrikula. Tel.: 943 - 79 76 64.

- 4 pertsonarentzako kanpin erremolke salgai. Aurrerapena (avance) eta sukaldea dauzka. Egoera oso onean. Prezioa 125.000 pta. Tel.: 79 49 28.

DENETARIK

26. Saldu

- Macintosh ordenadorea salgai. Centris 650 modeloa. 12 mega RAM. 80 megako disko gogorra. 7.1. Sistema. Tel.: 79 97 60.

- Josteko eta zig-zag egiteko Sigma makina industrialia salgai. Tel.: 79 42 70.

- Pit-bull txakurkumeak salgai. Pantxo eta Patrick odolekoak. Txakurkume marroiak Rednoserekin eta tigre era-koak zuriarekin. Prezio interesgarria. Deitu gaueko 21:00etatik aurrera. Tel.: 943 79 37 17.

- Piragua salgai. Invader Light motakoa. Estalkia, arrauna eta salba-jantzia. Dei egin 79 71 44 telefonora, eta Albertoz galdetu.

- Bizikleta salgai. 54 neurriduna. Orbea Ziroko modeloa. Tel.: 79 77 54. Dani.

- Autoaren barruan eramateko ume-en aulkia salgai. Tel.: 79 44 14. Lane-gunetan 19:00etik aurrera; asteburuetan eguerdian.

- Soinua salgai. Berria. Dimai markakoa eta tekladuna. Tel.: 943 - 79 86 59.

- Dainesse markako motortrajea salgai. Berria. 50 tailaduna. Tel.: 943 - 79 76 64.

- Hi-Fi bozgoragailu bi salgai, Avid markakoak. 15 - 150 watio, 92 dB - W - m. Tel.: 943 - 79 76 90.

- Logela salgai. Armairu bat, kabezera bat, bi mesanotxe. Tel.: 943 - 77 15 84 (gauetz).

27. Erosi

- Bigarren eskuko kafe errotatxoa erosi-ko nuke. Tel.: 943 - 79 23 58.

- Ehiza txakurrak eramateko bigarren eskuko eskorga merkea erosi-ko nuke. Tel.: 943 - 78 34 64. Migel Angel.

29. Eman

- Bost hileko txakur mestizoa oparitu-ko nuke, ondo zaintzekotan. Tel.: 943 - 79 90 46.

- 1,50 m. dituen bi ateko hozkailua oparitzen da. Tel.: 943 - 79 95 83.

31. Galdu

- Urrezko katea galdu dut. Aurrealdean S. A. siglak daramatza eta atze-

aldean odol taldea. Deitu telefono honetara: 943 - 79 96 37.

- Pepe jeans markako jaka beig panaduna galdu da. Aurkitu duenak, mesedez deitu. Tel.: 943 - 79 01 59.

- Eroskiko aparkalekuan 20 konpakto zituen poltsa bat galdu nuen. Topatu duenak dei egin dezala mesedez, eskertuko da eta. Tel.: 943 - 74 14 71.

- Betaurreko graduatuak galdu ditut. Deitu 943 - 77 05 23 telefonora.

32. Aurkitu

- Errealeko elastikoa aurkitu dut Zigorrolako kiroldegian. Tel.: 943 - 77 10 59.

37. Bestelakoak

- Irrati programa baterako, munduan zehar ibili den jendearekin harremanetan jarri nahi dugu. Arrasate Irratiko telefono hauetara deitu: 943 - 79 58 40 (erantzungailua) edo 943 - 79 58 77.

- Artzain txakur aleman emea bilatzen ari naiz, nirearekin emaltzeko. Nirea artzain txakur aleman-altzaziarra da. Tel.: 943 - 79 03 37 edo 943 - 79 36 12.



**ZUZEN-ZUZENEAN
FABRIKATIK
ZURE ETXERA**



Kataide industrialdea • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 79 91 75

Zentzu apur bat zoroZ beteriko mundu batean



Zoroen mundu honetan zentzuzkoena
desberdina izatea da.

Zeure helburuak finkatu
eta zeure erabakiak hartu.

Inork ez diezazula esan zer egin behar duzun.

Zuk zeuk erabakitzen duzu zeure bidea.

Nahi duzun bezala bizi.

Nahi duzun bezala jantzi.



KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT

Kontzezino kalea, 8
ARRASATE

TEL.: 943 - 79 46 12 / 943 - 77 12 47





Iluntzean Berriketan, arratsaldeko 20:30etatik 21:00etara izaten da.

“Iluntzean Berriketan” Almeneko ikasleen saioa Arrasate Irratian

Arrasate Irratiak indartsu hasi zuen udaberria, eta urtaro berriarekin makina bat irratsaio estreinatu zituen. Osotara hamabost irratsaio egiten dira gure irratan.

Batzuek denbora luzea daramate antenan; besteak berriz, hasi berriak dira. Aukera eta adin guztietarako dau- de txokoak.

Astelehenetik ostegunera- ko tarte Almeneko DBHko ikasleena da. *Iluntzean Berri- ketan* saioan elkartzen dira, gazteen inguruko gaiak jorra- tzeko.

Gutzira 120 inguru ikaslek parte hartzen dute. Arrasateko eta euskal kulturaren inguruko pertsona ospetsu dexente eza- gutzeko aukera izango da *Ilun-*

tzean Berriketan saioan.

Gazte hauen galderak *Ekon, Etsaiak* edo *Negu Gorriak* musi- ka taldeek erantzungo dituzte, besteak beste. Kirolari gazteek ere izango dute zer esana saio- an. Eta jakina! Pil-pilean dau- den gaiak ez dituzte ahaztuko: Lastertasun Handiko Trenaren inguruan gehiago jakiteko auke- ra izango da.

■ ATBko programazioa

Arrasate Irratia 107.7 FM

LARUNBATA

9:00 **Egunaren harian.** (albistegia)
9:30 **Musika**
10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte, Garbiñe Perez eta Belen Aranbarriekin.
11:00-12:00 **Zoroklasikoak.** Musika klasikoa, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaizola eta Eusebio Iñarrarekin.
12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA

GOIZ-EGUERDIZ

9:00 **Egunon Arrasate.** (albistegia)
9:30-11:00 **Goizoro.**
11:00- 13:00 Gaueko programen errepikapena.
13:00-14:00 **Goizak gaur.** (Euskadi Irratia).
14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

Astelehena

20:30- 21:00 *Iluntzean berriketan.*
21:00-22:00 **Jokoz kanpo.** Kirolak, Gorka Etxabe, Belen Carenas eta Rafa Mungjarekin.
22:00-23:00 **Soloik Solo.**

Asteartea

20:30- 21:00 *Iluntzean berriketan.*
21:00- 22:00 **Hitza ta Ekintza.**
22:00-23:00 **Euskal Festa.** Goizane Arana, Maider Errarte, Dabid Iglesias eta Garbiñe Perezekin.

Asteazkena

20:30- 21:00 *Iluntzean berriketan.*
21:00- 22:00 **Musika**
22:00-23:00 **KK2A.**

Osteguna

20:30- 21:00 *Iluntzean berriketan.*
21:00- 22:00 **Kaleko Hautsak astinduz.**
22:00-23:00 **Kutrelax.** Belen Carenas eta Kaittin Allenderekin.

Ostirala

20:30-21:00 **Planning Prest.**
21:00-22:00 **Music Box.**
22:00- 23:00 **Txerrendantza**
23:00-24:00 **Draxtor.** Makina musika.

LARUNBATA, 16	ASTELEHENA, 18	ASTEARTEA, 19	ASTEAZKENA, 20	OSTEGUNA, 21	OSTIRALA, 22
Astean zehar eskai- nitako programa interesgarrien errepika.	13:30 Astebete. (Erre- pika)	13:30 Mondrasport. (Errepika)	13:30 Lotsa Barik. (Errepika)	13:30 Munduari buel- taka. (Errepika)	13:30 Kukaratxa Motel. <i>Unai Ipa- rragirre, Betirtze Iñurritegi</i> eta <i>Alaz- ne Ruiz de Munai- nekin.</i> Gaztetxo- endako lehiaketa umoretsua.
13:30 Kukaratxa motel	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	19:15 Kukaratxa Motel. <i>Unai Ipa- rragirre, Betirtze Iñurritegi</i> eta <i>Alaz- ne Ruiz de Munai- nekin.</i> Gaztetxo- entzako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 Berriak.
14:15 Astebete	21:30 Mondrasport. <i>Itxaro Zubillaga.</i> Asteburuko kirol jardueraren erre- paso zabala, Zal- dibarko futbito txapelketa, gonbida- tuak... eta lehia- keta astelehene- ro.	21:30 Lotsa barik. Maier Uranga.	21:00 Munduari buel- taka. Fernando Oregik azalduko du India eta Nepale- ra egindako bidaia.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	21:30 Astebete
14:45 Mahai ingurua Gaia: Eibar - Gas- teiz autobidea				21:30 Kukaratxa Motel.	



1960. urtea zen Jesus Guridiren *Mirentxu* zarzuelak urrezko ezteiak bete zituenean. Arrasatearrek Jesus Guridi gonbidatu eta obra antzestu zuten estreinuaren urteurrena ospatzeko, urte hartako ekainean. Orkestra gasteiztarra zen, baina zarzuelaren antzezleak arrasatearrak izan ziren. Sekulako ikusmi-

na piztu zuen herrian zarzuelak eta emanaldiaren egunean Ideal zinema kokoteraino bete zen. Bilboko kazetariak ere etorri ziren eta orduko kronikak Arrasateko emanaldiaren berri jaso zuten. Arzamendi anaiak entseieuz arduratu ziren eta Jesus Aranbarrik zuzendu zuen obra. Tamalez, handik hilabetera hil zen Aranbarri, bihotzekoak jota.

Argazkian eta ezkerretik hasita: Jose Antonio *Maño*, Jose Mari Mendizabal, Anton Otadui, Juanito Arzamendi, Juanito Egidazu *Kurri*, David Arzamendi, Rafael Garcia, Jesus Aranbarri, Iñaki Larrañaga, Zumelaga, Jesus Guridi, Karmen Berezibar, Juli Berezibar, Pilar Arzamendi, Josefina Madariaga, Angelines Bermejo, Espe, Maribel

Otxandiano eta Iñarra. Mutikoa Pakito da. Makurtuta: Elisabeth, Begoña Garcia eta Jon Belar.

Behean: Orkestrako musikoa eta Balbina Madinabeitia, Arrasateko biolin jole famatua.

Berriemailea: Imanol Zeziaga



- Inportazioko autoak
- Marka guztiak
- Kalitate-preziorik onenak



- Sarrerarik gabeko finantziazioa
- Mota guztietako autoak

• BOLUMENBAKARRAK • LURROROTAKOAK • FAMILIARRAK

Amillaga, 10 B • BERGARA (ITV ondoan) • Tel./Faxa: 76 04 58

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN espezializatutako saltokia

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.
Batetik, kalitate eta diseinurik handieneko logelak,
garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean,
merkeenak.

**BENETAN
HARRIGARRIA!**

**LARUNBAT ARRATSALDETAN
ZABALIK!**

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabilioia • ARRASATE • Tel./Faxa: 79 41 82

VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 ▪ Tel.: 79 78 10 ▪ ARRASATE
Ibargarai, 24 ▪ Tel.: 76 12 21 ▪ BERGARA

*Zure ongizatea
babesteko gaude*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**



SALDU OSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTITAKOAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA.

Mondeo

Liderrak
prezio-kalitatean



Norbaitek Mondeo bat daukanean, 4 edo 5 ateduna, nahiz wagon delakoa, edozein ibilbide egiten zaio laburregia. Izan ere, gidatzeak sortzen duen zirraraz benetan gozatzeko dutenek, Mondeo batekin inoiz baino gehiago gozatuko baitute errepidez. Duen zehaztasunagatik, leuntasunagatik, egonkortasun berebizikoagatik, galga ematerakoan duen erantzungatik, isiltasunagatik, bukatze mailagatik eta, noski, bere itxura erakargarriagatik, Mondeo bat inoiz frogatu ez duten horietakoa bazara, orainixe duzu bat gidatzeko aukera.

hitzegin dezasun
902 442 442

www.ford.es

RS 24V 170CV 3.500.000 pta

GHIA 16V 130CV 2.800.000 pta

GHIA TD 90CV 2.700.000 pta

CLX 16V 115CV/TD 90CV 2.350.000 pta

**DEBA GARAIKO
KONTZESIONARIO
OFIZIALA**

MUGARRI

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 07 44

